

ANTXIÑAKO FOTOGRAFIAK



Aitta Madina eta Irrintzi zortzikotia

Aurten bete da, ondotoxo dakitzuenez, **gizaldi erdi** Aitta **Frantzisko Madina Igartzabal** (1907-1962) musikagille oñatiarra **ahil zala**. Hori dala eta, urtian zihar **hainbat kontzertu** antolatu dira herrixan eta hemendik kanpora bere **omenez**. Izan be, benetan merezi dau gogoraketia Txipitxailleko semiak burututako lan ikaragarria. Abade eta irakasle moduan betik izan zittuan zeregin eta kargu morduak baztertu barik, harrigarria da ikustia zelako **musika-produkziño aberatsa eta ugarixa** itzi oskun.

Gaurkuan obra horreittako **sail txiki-inportante bateri** erreparauko xaugu: otxotientzako modutu zittuan atal ezagunairi; eta horrekin batera, Oñatiko **Irrintzi** zortzikotiarekin euki eben hartu-emun estuari. **Joxe Mari Arzuaga Lasagabaster** txantxikuarrak (1932-1967) osotutako otxote hau ospetsua bihurtu xakun Euskal Herri darian 1960ko hamarkadan. Iraun eben bittartian ondo-rengo kantarixak pasau ziran talde honetatik aldi desbardiñetan: **Federiko Mendizabal, Joxe Antonio Billar, Nikolas Erostarbe, Felix Arregi, Joxe Otalora, Jabier Letamendi, Julio Ibarrondo, Juanito Arkauz, Manolo Urzelai, Eujenio Kortabarria, Joxe Errasti, Juan Migel Ordoki eta Jerman Aramendi**.

Patxi Madinak Argentinan zala ekin otsan ahots bardiñetarako euskal kankak sortzeiari. Han kaleratu eben 1955ian **Saski-Naski** izeneko **liburutxua**. Sorta honek hamabi abesti eukan, euretariko asko, batez be, Oñatiko otxotiaren bittartez Euskal Herrixan zabaldu ziranak: adibidez, **Dingilin dron, Beti eskama kentzen, Oles ezkonberriak** edota **Tabernari andrea**. Baiña etzan bakarria izan; ondoren **beste bost kanta-sorta** be gauzatu zittuan, gizonezko zortzikotiak kantaitteko egogixak; horreittako **hiru Irrintzi taldiari eskiñittak**uak, eta beste bat agustiñotako estudiante gaztien artian moldautako **Kaixo** otxotiari. **Berrogei kantutik gora guztira**.

Ezkerreko argazkixan **Irrintzi**ren **hasierako parte-hartzailliak** agerketan xaku Donostiako lehenengo obispua zanarekin, **Arantzazuko pelotalekuan**, 1961-1962 aldera. Ezkerretik eskumara: **Joxe Mari Arzuaga**, zuzendarixa; **Felix Arregi; Jabier Letamendi; Julio Ibarrondo; Nikolas Erostarbe; Jaime Font i Andreu**, Donostiako obispua; **Federiko Mendizabal; Juanito Arkauz; Joxe Antonio Billar**; eta **Manolo Urzelai**.

Eskumako fotografia, berriz, Bilboko **Coliseo Albia** teatruan ataratakua da 1964ko martixaren 19xan, **Irrintzi**k Euskal Herriko otxotien II. Lehiaketan **txapeldun** urten ebenian. Ezkerretik eskumara: **Joxe Antonio Billar**, tenorra; **Joxe Mari Arzuaga**, zuzendarixa; **Juan Migel Ordoki**, tenorra; **Nikolas Erostarbe** eta **Felix Arregi**, bigarren tenorrak; **Joxe Errasti** eta **Joxe Otalora**, baritonuak; eta **Jabier Letamendi** eta **Manolo Urzelai**, bajuak.

Harrezkero, majo mobiu ziran kantuan batera eta bestera abeslari oñatiarrok. **Diskuak be grabau zittuain** Bartzelonan, Madinaren obra askorekin. Eta berau bittarteko zala, **Argentina eta Estatu Batuetara fateko asmotan ebiltzenian, eten latza** eta mingarria suertau xaten: 1967ko garagarriilian, **Joxe Mari Arzuaga** zuzendarixa ezbihar batian Naparruako **Bianan hil zanez, Irrintzi** nahikua **umezurtz** geratu zan. Hurrengo urtian Madina laterandarrak musika-lan ederra eskiñi otsan adiskide miñari: **Ildakoen meza, Jose Mari Arzuagaren oroiz** izenekua.

Argazkixak Felix Arregiren fondokuak dira eta guri Iñigo bere semiaren bidez heldu xaku. Argibidiak Xabier Ugartek eta Joxe Antonio Billarrek eskuratu doskue. Milla esker danoiri!